

ararteko

Herriaren Defendatzailea · Defensoría del Pueblo



Laburpena

Eusko Legebiltzarrarentzako
urteko txostena. 2015

18. Zk.



AURKIBIDEA

00. AURKEZPENA	02. or.
01. ARARTEKOAREN JARDUERA ZENBAKITAN	06. or.
02. JARDUERAK	08. or.
03. GOMENDIO OROKORRAK	16. or.
04. JARDUNALDI ETA AZTERLANAK	18. or.
05. HAUR ETA NERABEEN BULEGOA	22. or.
06. BESTELAKO JARDUERAK	24. or.
INFORMAZIO INTERESGARRIA	30. or.

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo



Lan hau Creative Commons Attribution 3.0 Unported (CC BY 3.0) lizentziapean dago
Lizentziaren kopia bat ikusteko sartu [hemen](#)





Sortzen diren erronka ugariarentzat konponbideak bilatzen jarraitu behar dugu, giza eskubideak errealitatean eraginkorrak eta errespetatuak izango direla bermatzeko”

2015ean egin dugun lana aztertzeak ematen digun aukera aprobetxatuz, oso bereziki nabarmendu nahi dut **giza eskubideen aldeko kultura indartu behar dela**, botere publikoek nahiz herritar guztiok eskubide horiek sustatzen eta sendotzen lan egin dezagun.

Horretarako, Zuzenbideko Estatu Demokratikoa osatzen duten erakunde eta organoei eskatu behar diegu erabat errespetatu ditzatela pertsonen eskubideak eta berme-sistema.

Azken urteotan gertatu den bezalaxe, gure lanaren azterketarekin batera, aurreko azpimarratu behar dugu **krisi ekonomiko eta soziala oraindik ere ondorio larriak sortzen ari dela** milaka familiaren egoeran eta bizi-kalitatean. Egungo krisia konpontzeko, ezinbestekoa da eskubide sozialen unibertsaltasuna aitortzea. Krisiaren ondorioak are okerragoak izango lirakeke, dudarik gabe, botere publikoek beren erantzukizunak bereganatu izan ez balituzte eta krisiak baliabide ekonomikorik ez dutenei, langabeei, pertsonarik ahulenei ekarri dizkien ondorio larriak, neurri batean behintzat, arindu ez balituzte.

Gure erakundea eta burutu dugun jarduera ez dira egoera orokor horretatik kanpo geratu.

2015ean, **Arartekoa** herritarrekin zerikusia duten ia **9.000 jarduera** egin ditu. Azken bost urteotan %45eko hazkuntza izan dugu. Hala ere, gure eraginkortasuna aldaketarik gabe mantendu da. Horren adierazgarri da kexa-prozedurak batez beste 63 egunean bideratu direla. Gure ebazpenak ere eragingarriak dira, izan ere, aztertu ditugun kasu zehatzetatik **%86tan administrazioak onartu egin ditu Arartekoaren gomendioak**.

Tamalez, beste zenbaitetan, administrazioak ez dio beti behar bezala laguntzen erakunde honi. Horregatik, administrazioari ardura eskatzen diot, bada, horri esker, herritarrei eskainitako zerbitzua hobetuko da eta pertsonen eskubideak babesten dituzten bermeak indartuko dira.

Jakin badakigu informazioak herritarrek trebatu eta aktibatzen dituela, eta gure lana sozializatzeko, ikusarazteko eta gardenago egiteko iturria dela. Horregatik, Ararteko erakundean ahaleginak egin ditugu gure web orrian (**www.ararteko.eus**) informazio oparoa emateko.

Gainera, 2015ean apustu irmoa egin dugu helburu honen alde: gure presentzia eragingarria, gure hartu-emanak eta laguntza sustatzea beste herrialde eta eskualde batzuetan dauden beste mekanismo eskubide-babesle batzuekin (Arartekoa bezalakoak), batik bat gure ingurukoekin. Zalantza barik, gure presentziak eta eskubideen defentsa-erakundeekin eta **giza eskubideen nazioarteko erakundeekin** izango dugun lankidetzak eragingarriagoa bihurtuko dute gure ekintza babesle eta jagolea, geure eskarmentu aberatsa emango die gurearen antzeko beste erakunde batzuei haiek garatzen lagunduz, eta jarduera egokiak, sinergiak eta proiektu komunak bultzatuko ditu. Horren guztiaren ondorioz, hobeto defendatu eta sustatuko dira herritarren eskubideak eta askatasunak.

Era berean, **gizarte-erakundeen eta boluntarioen eginkizun antolatzailea** aldarrikatu nahi dut, etengabe eta modu eredugarrian erakusten baitute beraien indarra, baita inklusio, kohesio, ekitate eta gizarte-justiziaren alde egiten duten lana ere.

Bukatzeko, Ararteko erakundea giza eskubideak betetzen ote diren ikuskatzeko eta zaintzeko tresna gisa erarabatu dagoenez gero, zera azpimarratu nahi dut: sortzen diren erronka ugariarentzat konponbideak bilatzen jarraitu behar dugu, giza eskubideak errealitatean eraginkorrak eta errespetatuak izango direla bermatzeko.

Manuel Lezertua Rodríguez
ARARTEKOA

IÑIGO LAMARCA

Eusko Legebiltzarrak 2014ko ekainean izendatu zuen, lehengo, Iñigo Lamarca ararteko. Bost urtez bere karguan egon ondoren, berriz ere hautatua izan zen, beren bigarren eta azken aldirako, legebiltzarkide gehienen babesarekin. Hala, erakunde honetan **berriz hautatua izan zen lehen arartekoa** izan zen.

Urte horietan Arartekoan egin duen lana honako ardatzetan antzeman daiteke: **erakundearen modernizazioa** eragitea; eskaintzen dituen zerbitzuetan eraginkortasuna eta kalitatea irabaztea; Arartekoaren proiektioari bultzada berri bat ematea: **gizarte erakundeekiko** harremanak estutzea, eta Arartekoaren jarduera eremua zabaltzea, bere eskumen esparruan, bere lana politika publikoen diagnostikoaren eta gizarte errealitatearen ezagutza arloetan sakonduz eta hedatuz, batez ere pertsona eta talde behartsuenei dagokienez.

Iñigo Lamarca Donostia-San Sebastiánen jaio zen. **Zuzenbidean lizentziatu** zen Euskal Herriko Unibertsitatean eta, bertan, hain zuzen ere, Zuzenbide Konstituzionaleko irakaslea izan zen hamarkada batez. Hainbat ikerketa lan egin zituen euskal zuzenbide autonomikoaren eremuan eta 1994an letradun kargua hartu zuen Gipuzkoako Batzar Nagusietan. **Pertsona homosexualen eta transexualen eskubideen aldeko defentsan** egindako lanagatik gailendu da. 1997tik ararteko izendatua izan arte, Gehituko (Euskal Herriko gay eta lesbiana elkarte) presidente eta FELGTBeko (Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Estatuko Federazioko) zuzendaritza taldeko kide izan zen. Halaber, hainbat komunikabidetan ohiko kolaboratzailea eta artikulu idazlea izan da eta *Gay nauzu* (Soy gay) liburuaren idazlea da.



JULIA HERNÁNDEZ

Julia Hernández arartekoaren ondokoa izan da 2004az geroztik eta **jarduneko arartekoa** ere izan zen Iñigo Lamarcak kargua utzi zuenean. Zuzenbidean lizentziatu zen Salamancako Unibertsitatean eta Kriminologia diplomatu da Euskal Herriko Unibertsitatean. Horrez gain, zerga, lan aholkularitza eta gizarte segurantzaren zuzenbidean ere diplomatuta dago.

Gipuzkoako Abokatuen Elkargoan abokatu lanetan aritu zen 1989tik 2004ra eta bere espezialitatea gai penal eta zibilak izan ziren, batez ere, adingabeen eta emakumeen eskubideen defentsa. Aldi horretan Abokatuen Sareko kide izan zen. Gipuzkoan Clara Campoamor elkartearen ordezkari arduraduna izan zen. Talde honek ibilbide luzea dauka emakumeen eta adingabeen oinarrizko eskubideak defendatzeko orduan. **Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren (FIO) Emakumeen Defentsa-erakundearen Sareko kidea** da eta gaur egun Europako Eskualdea koordinatzeaz arduratzen da. Halaber, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen kide numerarioa da.

Gaur egun, Manuel Lezertua **ararteko** berriaren **ondokoa** da.





MANUEL LEZERTUA RODRÍGUEZ ARARTEKOA

Eusko Ganberak Manuel Lezertua Rodríguez izendu zuen **EAEko ararteko**, 2015eko maiatzaren 28an, EAJ, PSE-EE eta PPren aldeko botoekin. Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuran hartu zuen kargua, ekainaren 18an. Ekitaldi horretara, bere senide eta lagunez gain, karguan aurrekari izan zituenak ere bertaratu ziren.

Legebiltzarrak berari emandako konfiantza eskertu ondoren, Lezertuak **kudeaketa publikoan gardentasuna eta hiritarren partaidetza sustatzeko** borondatea adierazi zuen. Halaber, gaineratu zuenez, bere asmoa *“guztien ararteko izatea zen, bereizketarik gabe. Hiritarregandik ahalik eta hurbilen, beti beren eskubideak eta duintasuna ahalik eta eraginkortasun gehienez bermatuta.”*

Dibertsitatearen desafioari erantzuna ematen lan egiteko prestutasuna ere adierazi zuen, *“dibertsitatea baita geroz eta globalizatuagoa den mundu honetako elementurik zirrargarrienetako bat. Arartekoaren jarduera gero eta gehiago gauzatu behar da gure gizarteak bizi duen esparru europarrean. Arazoak partekatzen ditugu eta irtenbide komunak eta jardunbide onak bilatzeko lan egin behar dugu”*.

Manuel Lezertuak **gizarteari**, eta *“batez ere talde ahulei eta biktimei”* **entzuteko** asmoa ere azpimarratu zuen. Horrez gain, elkarrizketa zintzo eta zabala eduki nahi du euskal erakunde eta agintari guztiekin, *“bereiziki, Legebiltzar honekin, baina baita agintari autonomiko, foral eta tokikoekin ere, beren jardura ikuskatu behar baitut, hiritarren eskubide eta askatasunen bermatzaile naizenez gero”*:

Bilbon jaioa, Manuel Lezertua zuzenbidean lizentziatu zen eta legeen masterra egin zuen Londresko Unibertsitatean. Bere ibilbide profesionala Eusko Jaurlaritzako abokatu gisa hasi zuen, eta, ondoren, Estrasburgora lekualdatu zen, **Giza Eskubideen Auzitegi Europarreko eta Konstituzionaleko letradun** gisa lan egitera. Europako Kontseiluko kriminalitate finantzarioaren aurkako borroka ataleko burua izan zen eta, organismo horretan bertan, aholkulari juridiko lanean aritu zen.

ARARTEKOAREN JARDUERA ZENBAKITAN


2015. urtean zehar guztira **8.938 jarduerari** erantzun diogu (6.394 kexak). Zuzeneko arretaren bulegoetan guztira **7.678** zerbitzu eman ditugu: **2.413 telefonoz** eta **5.265 pertsona** hiru bulegoetako baten batera bertaratu dira, informazioa eta aholkua eskatuz.

2015. urtean, herritarrek guztira **6.394 kexa** aurkeztu dituzte Ararteko erakundeetan eta **ofiziozko 61 espediente** izapidetzen hasi gara. Informazio horretatik ondoriozta daiteke, 2010. urtearekin alderatuz gero, une horretan krisiaren ondorioz larrienak bistaritzen hasi zirenean, herritarren kexak arrazoi askoren ondotik ugaritu egin direla (% 45) baina, batez ere, izaera ekonomikoko gizarte prestazioei buruzko kexen zama handiaren ondotik.

2015ean **1.897 kexa-espediente ebatzi dira** eta **1.549 ebazpen** eman dira. Ebazpen horiek aztertzean antzeman dugu 596 kasutan eragindako administrazioaren jardura desegokiren bat egon bazegoela, alegia, %43 kasu baino gehiagotan [iazko ehunekoa (%51) baino txikiagoa]. Aldiz, ez da okerreko jardunik hauteman aztertutako espedienteen %57tik hurbileko ehunekoan.

Gehienetan (%86,22) eragindako administrazioak erreklamazioa eragin zuen jarduna zuzendu eta aldatu du. Kasu gehienetan ez da zehaztu Arartekoaren gomendio formal bat.


Arartekoaren jardura guztiak 2015ean



Kexak	6.394
Informazioa eta aholkuak telefono zerbitzuaren bitartez	2.413
Laneko bilerak administrazioekin	59
Laneko bilerak gizarte erakundeekin	57
Ikuskapen-bisitak	6
Gomendio orokorrak eta azterlanak	5
Jendearentzat irekitako jardunaldiak	4

GUZTIRA
8.938

Arartekoari 2015ean egindako kexak



GUZTIRA
6.394

2015eko kexa prozeduren batz besteko iraupena 63 egunekoia izanda, eta urtetik urtera epeak murrizten joan dira.

Aurkeztutako kexek hizpide duten gai-arloaren arabera gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeko bitartekoei loturiko erreklamazioak handitu egin direla antzeman dugu: **775** (2014ko 604en aurrean) **Lanbideren** funtzionamendu txarrarekin zerikusia daukaten arazoak dituzte hizpide, baita diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria kudeatzearen arloan burututako jarduerak ere.


Jardura altua aurkeztzen duten beste eremu batzuk dira **hezkuntza, etxebizitza, osasuna, erregimen juridikoa, herri-administrazioen ondasun eta zerbitzuak edo ogasuna**. Izan ere, Arartekoak izapidetutako kexa-espedienteen %56a baino gehiago **eskubide sozialekin** lotuta daude.

Arreta publikoko kolektiboei zuzendutako kexa-identziak ere 2015ean kudeatutako kopuru handia dira. Espediente horiek %42 ingurua (gizarteratze eremuak barne) pertsona guztien **benetako berdintasun eragin-korra** bermatzera zuzendutako **politika publikoekin** lotuta daude.

Administrazio bakoitzari eragiten dioten izapidetutako espedienteen proportzioari buruzko datuen arabera, aurreko urteetan bezala, **Eusko Jaurlaritza** izan da idatzizko erreklamazio gehien jaso dituen erakundea (%64tik gertu) eta euskal udalen jarduerari buruzkoak arinki murriztu dira (%25).

Edozelan ere, espedienteetan inplikaturako administrazioak ikertzeak **ez du esan nahi jarduera okerrik egin dutenik**, bai, ordea, erreklamazioak haren jardueraren bat hizpide izan duela.

Bideratutako espedienteen banaketa, eragindako administrazioen arabera



Eusko Jaurlaritza	% 63,75
Tokiko administrazioa	% 24,98
Foru administrazioa	% 8,41
Justizia	% 1,40
Erakunde publikoak	% 1,34
Estatuko administrazioa	% 0,12

GOGO BETETZE MAILA

Duela zenbait urte herritarrengana hurbiltzeko bideari ekin genion, Ararteko erakundearen esku-hartzea eskatu duten pertsonen iritzia ezagutzeko eta eskaintzen dugun zerbitzua hobetzen saiatzeko. Horregatik, kexa-espediente baten izapideak amaitzen ditugunean, kexagileari galdera sorta bidali ohi zaio, nahi izanez gero eta izena ipini barik, galdera batzuei erantzuteko eskatuz. Horrela, emandako zerbitzuaren gainean egiten duen balorazioaren berri eduki dezakegu.

Emaitzak baloratzeko orduan zera izan behar dugu kontuan, 2015ean guztiz izapidetu diren kexetatik, soilik kasuen %43an ikusi dela ukitutako administrazioaren okerreko jardueraren bat.

Arartekotik jasotako informazioa nola baloratuko luketen galdetu ondoren, erreklamazioaren bat aurkeztu duen herritarren %67,39k (betiere, erreklamazioaren izapidetzea amaitu bada) uste du **“jasotako informazioa ona edo oso ona”** izan dela. Gainera, %74,5ak jasotako arreta **ona edo oso ona izan dela uste du.**


Arartekoaren esku-hartzearen inguruan (eskuragarritasuna, erakutsitako interesa, egindako kudeaketak) %56,2ak uste du positiboa edo oso positiboa izan dela eta horietako %20 ak egokitatzat jotzen du.

%78ak baino gehiagok administrazioarekin arazoak daudenean Arartekoarengana jotzea gomendatuko zuen, eta %64ak Arartekoak gizartearen eta administrazioaren aurrean duen irudia eta **sinesgarritasuna** ona edo oso ona dela uste du.

Emaitza hauekin, aurreko urteen antzekoak, ondorioztatu dezakegu Arartekoaren zuzeneko esku-hartzearen eremuekin lotutako iritziak aztertzen direnean –euren jardura propioen eta baliabide pertsonalen menpe dagoena-, garatutako lanaren **balorazioa oso positiboa** da.

Arartekoaren erabaki edo jardunetik at dauden alderdien gainean galdetzen denean emaitza ezberdina da, hein handi batean administrazioaren laguntzeko jarrerarekin zerikusia dutelako batez ere eta prozesuaren iraupenean ikusten dena (%56ak uste du igarotako denbora luzea edo oso luzea izan dela).

Oro har, nolakoa iruditu zaizu Arartekoaren lana? (Azaldu duen interesa, laguntzeko prest egotea, egindako gestioak...)



HIRITAR BATEK LARRIKI GAIXORIK DAGOEN BERE SEME ADINGABEA ZAINZKEKO LANALDI MURRIZKETAREN ZIOZ ESKATUTAKO LAGUNTZAK JASOKO DITU

Hiritarraren semeak zazpi urte dauzka, % 33ko ezintasuna dauka eta II. mailako mendetasuna (mendetasun gogorra) aitortu diote. Bere amak, Arartekoaren esku hartzea eskatu zuen, Eusko Jaurlaritzak ukatu egin zizkiolako lana eta familia uztartzeko laguntzak. Kexagilea besteren konturako langilea da eta bere lanaldia heren bat murriztu zuen, bere semea zaintzeko, 2007ko urrian. Harrezkero, lanaldi murrizketa horrekin egon da eta Eusko Jaurlaritzan **seme-alabak zaintzeko eskaintzen diren laguntzak** jaso izan ditu.

2014ko apirilean, hala ere, bere lan eta familia egoera nabarmen aldatu zen, bere semeari minbizia diagnostikatu baitzioten. Orduan, **Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomiko** bat eskatu zuen, minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeen zaintzarako lanaldia murrizten duten guraso, adoptatzaile edo hartzaileei zuzenduta. Tratamendu onkologikoari hasiera eman zitzaionean, interesdunak prestazio hori jaso zuen eta bere lanaldi murrizketa % 66 igo zuen, bere semea zaindu ahal izateko, tratamenduak irauten zuen bitartean. Murrizketa

horri aurretik zuen %33ko murrizketa gehituta, guztira lanaldiaren murrizketa %99,99koa da. Data horretatik aurrera, Gizarte Segurantzaren prestazioa jasotzen zuen eta haren zenbatekoa, hain zuzen ere, interesdunak laguntza eskatu arte jasotzen zuen soldataren parekoa da, hau da, konpentsatu egiten du prestazio hori lortzeko murrizten duen %66ko lanaldiari dagokion soldata. Gainerako soldataren %33, bere lanaldiaren %100 osatu arte, ez du jasotzen, eutsi egiten baitio %33ko hasierako lanaldi murrizketari, bere seme adingabea zaintzeko.

Gure ustez, %33ko lanaldi murrizketaren ondorioz galdu-tako diru sarrerak partzialki konpentsatzeko, interesdunak bete egiten zituen seme-alaben zaintza uztartzeko laguntzekin jarraitu ahal izateko betekizunak. Gainera, zaindu behar zuen semeak hiru egoera dauzka, era isolatuan diruz lagun daitezkeenak: %33ko ezintasuna daukan 12 urteko seme adingabea, batetik, mendetasun egoera, bestetik, eta osasun egoera larria, azkenik. Hala eta guztiz, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren ustez, kasu zehatz honetan egoera horietako batek ere ez zuen ahalbidetzen eskatutako laguntza, eta, beraz, eskabideak ukatu zituen, arrazoi desberdinen ondorioz.

Kasua zehatz-mehatz aztertu ondoren, **Eusko Jaurlaritzari gomendatu genion** interesdunak bere semea zaintzeko **eskatu zituen laguntzen ukapena indarrrik gabe utz ezazala**. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren erantzuna baiezkoa izan da. **Laguntzak arautzen dituen dekretuak ez du zehazten diruz lagun daitekeen gehieneko lanaldi murrizketarik**. Ondorioz, aurrerantzean, 12 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko lanaldi murrizketaren barruan sartutzat joko dira, bai Langileen Estatutuaren arabera legezko zaintza xede dutenak, bai gaixotasun larri bat pairatzen duen adingabebaten zaintzarako direnak.

DONOSTIAKO UDALAK ONDORERIK GABE UTZI DU ZABOR POLTSA BAT ESPALOIAN UZTEAGATIK JARRITAKO ISUNA

Hala, bete egin du Arartekoak egindako gomendioa eta halaxe jokatu du bere garaian arazo beraren gainean zuzendu ziren beste bi ebazpenetan ere, ustez zabor poltsak espaloian uzteagatik jarritako isunen legezkotasun ezaren gainean.

Donostiako Udalak onartu egin du hiritar bati jarritako 250 euroko **isuna** ondorerik gabe uztea, **legezkotasunaren kontrakoa** delako. Hiri hondakin solidoak batzeko udal ordenantzan arau hauste arinetarako aurreikusitakoa baino zenbatekoa altuagoa zuen isuna jarri nahi zuen udalak, "hondakinak edukiontzitik kanpo uzteagatik...", salatutako gertaerak Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legeko artikulua batetako arau haustearekin bat zetozela ulertuta. Gainera, azaldu zuenez, hiritarrek bilketa puntuetatik kanpo utzi zuen zaborra eta udal agenteek interesdunaren izena eta helbidea zeramatzen gutun azal bati, sei zabor poltsari eta poltsa beltz bati egindako hainbat argazki aurkeztu ziren proba gisa, hori guztia, postontzian pareko espaloian. Jarduera txostenean azalduenez, "gune horretan etxeko hondakinak horretarako prestatutako tokietan jartzeko betebeharra behin eta berriz urratzen da eta arau hauste horrekin lotuta egon zitezkeen pertsonen datuak edo zantzuak bilatzen ari ziren. Horretarako, bide publikoan eta edukiontzietatik kanpo utzitako zabor poltsak ireki zituzten eta agiri honetan islatutako datuak izan ziren egindako bilaketan emaitzak."

Bestalde, kexagileak azaldu zuenez, zabor guztia birziklatzeko ohitura dauka, toki hori bere etxetik urrun dago, berak bere etxe ondoko bilketa puntuetan uzten du zaborra eta inoiz ez ditu erabiltzen zabor poltsa beltzak, argazkian azaltzen dena bezalakoak. **Zabor poltsa batean pertsona horren helbidea zeramanen propaganda gutun bat egoteak, gure ustez, ez du esan nahi pertsona horrek zabor poltsa bertan utzi zuenik**, ez baita identifikatzen arau haustea nork egin zuen, agenteek ez baitzuten zuzenean ikusi gertatutakoa eta, ondorioz, ezin izan baitzuten identifikatu espaloian zabor poltsa utzi zuen pertsona. Udalak adierazi duenez, berdin jokatu du bere garaian arazo beraren gainean zuzendu ziren beste bi ebazpenetan, ustez zabor poltsak espaloian uzteagatik jarritako isunen legezkotasun ezaren gainean.



HAUTESKUNDE MAHAIRA JOATEKO BETEBEHARRA, SENIDE GAIXO BAT ZAINDU BEHAR DENEAN

Betebehar horretatik libratzeko, senidearen gaixotasuna eta pertsona ukituaren zaintzaile izaera egiaztatu eta justifikatzen dituen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Udal eta foru hauteskundeetarako mahairako kide izendatua izan zen pertsona batek kargu hori betetzeko zailtasunak zituela adierazi zigun. Izan ere, bere senarra zaindu behar zuen, azken horrek alboko esklerosi amiotrofikoa baitzuen.

Idazki bat aurkeztu zuen bertako Hauteskunde Batzan eta betebehar horretatik salbuesteko eskatu zuen. Hala ere, Batzak eskari hori ezetsi zuen.

Estatu mailako administrazio publikoak kontrolatzea ez da Arartekoaren eskumenean sartzen, eta horixe da, hain zuzen ere, hauteskunde batzen ebazpenekin gertatzen dena. Hala ere, hiritar honi laguntzen saiatu ginen eta **hiritarrek hauteskunde mahaietako kide izateko duten betebeharraren lege esparrua azaldu genion.**

Hauteskundearen Araubideari buruzko 5/1985 Lege Organikoak dioenez, izendapena zozketa publiko bidez egingo da dagokion atalean errodatutako pertsona guztien artean. Betebehar horretatik libratzeko, kargua onartzea saihesten duen **kausa justifikatua eta dokumentatua alegatu behar da**, eta, hala, kasuan kasuko tokiko hauteskunde batzaren irizpideari jarraiki, eskaria baietsi edo ezetsi egingo da. Edonola ere, ebazpen honen aurrean ezin da errekurtsorik jarri. Hauteskunde Batza Zentralaren jarraibide bat dago, kargutik libratzeko arrazo guztiak azaltzen dituen. Bertan, berariaz azaltzen da hiritar honek azaldu zigun egoera: **ezintasunen bat duten pertsonan zaintza zuzena eta etengabea**. Kasu honetan, egoera zehatz hori egiaztatu egin behar da, lan egoeraren edo gizarte zerbitzuen ziurtagiriaren bidez. Kexagileak bere senarraren ezintasuna eta bere zaintzaile izaera egiaztatzen zituen dokumentazioa zeukan.

Inguruko hauteskunde batzarekin harremanetan jarri ginen, hauteskunde mahaiko kide izateko ezintasuna justifikatzeko eskatzen den dokumentazioa argitzeko. Hauteskunde batzak azaldu zigunez, gure eskaria kontuan hartu ahal izateko, pertsona zaintzailea zela egiaztatzen zuen ziurtagiria aurkeztu behar zuen. Txosten hori igorritakoan, kexagileak bere eskaria onartu ziotela eta hauteskunde egunean bere senarra zaintzen gelditu ahal zela jakinarazi zigun.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA INFORMAZIOAREN ESKABIDEAK EPE BARRUAN IZAPIDETU ETA EBAZTEKO BETEBEHARRA

Ekologistak Martxan elkarteak Bilboko Udalak bi informazio eskariren aurrean erantzunik eman ez izana salatu zuen. Honakoak ziren eskariak: lehena, Artxondoko harrobia berrezartzeko proiektuari buruzkoa, Pagasarriko Plan Berezian antolatutako gunearen barruan, eta, bigarrena, Pagasarri mendiko plan berezia garatzen zuten jardueri buruzkoa. Harrobiaren kasuan, ingurumen eraginarekin azterlanaren izapideari buruzko informazioa eskatu zuen eta harrobiarekin lotuta egon zitezkeen prozeduretan alderdi interesdun izateko eskabidea aurkeztu zuen. Halaber, Peñascaleko harrobia berrezartzeko planari eta haren garapen mailari buruzko eskari bat ere jaso zuen. Elkarte ekologistak salatu zuenez, **informazioa eskatu zuenetik hamar hilabete pasa ziren arren, ez zuen erantzunik jaso.**

Bilboko Udalarik informazioa eskatu genion, informazioa eskuratzeko eskabide horri erantzuna emateko jarraitu ziren jardueri buruz, eta, bereziki, horren gainean pertsona interesdunei igorritako komunikazioei buruz. Udalak jakinarazi zigunez, eskatutako dokumentazioa eta informazioa bidali zizkien pertsona interesdunei. Nolanahi ere, **erantzuna ez da hirigintza eta ingurumen araudian aurreikusitako legezko epeen barruan eman.**

Arartekoak gogorarazi egin nahi du **ingurumen eta hirigintza arloko informazio eskariak azkar, lehentasunez eta indarreko legedian aurreikusitako epeetan izapidetu eta ebatzi behar direla.** Gainera, herri administrazio euskaldunek bitarteko tekniko eta elektronikoa nahikoa eduki behar dute, legedi horren ondoriozko betebeharrak betetzeko. Legezko betebeharrak horren osagarri gisa, interesgarria da bestelako formulak bilatzea, informazio hori iritsarazi eta elkarte interesdunek ingurumen gaitan duten partaidetza sustatzeko.



ABANTO-ZIERBENAN SANTA JULIANA AUZOA HIRIGINTZA ALDETIK BERRITZEA

Abanto-Zierbenako Santa Juliana auzoa gizarte eta hirigintza aldetik narriatuta dago, eta, ondorioz, Arartekoak hainbat jarduera egin ditu.

Historikoki, udal zerbitzuak eta ekipamendu egokiak falta izan dira eta eraikuntzak narriatuta egon dira, besteak beste hiri antolamenduz kanpo dagoelako. Bada, egoera horiek izan dira, beste batzuen artean, jasotako kexak eragin dituztenak. 2010ean, hainbat gogoeta planteatu genituen Abanto-Zierbenako Udalarik eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Politiken orduko Sailari bidalitako **ebazpen** batean. Beharrezkoa iruditzen zitzaigun **auzoko esku hartze integralean** aurrera egin beharra, azken urteetan Santa Juliana auzoa gizarte eta hirigintza arloan narriatu egin dela kontuan hartuta. Harrezkero, harremanetan jarraitu dugu, bai ukitutako administrazioekin, bai auzoan bertan bizitzen jarraitzen duten pertsona batzuekin.

Gai honetan egon diren une garrantzitsuenen artean azpimarratzekoa da Abanto-Zierbenako **Hiri Antolamendurako Plan Orokorra behin betiko onartu izana**, 2010ean. Gainera, Eusko Jaurlaritzak diru laguntza onartu dio Abanto-Zierbenako Udalarik, Santa Juliana auzoa hirigintza aldetik lehengoratzeko obren lehen faseko kostua finantzatzeko, etxebizitza hutsa eskuratu eta ondoren eraitsita. Egiaztatu ahal izan dugunez, beharrezko hirigintza tresnak itundu eta gauzatzeko denbora behar den arren, **lehengoratzeko prozesua martxan dago** eta aurrera doa, astiro baina tinko.

Azpimarratu nahi dugu ukitutako **administrazioen artean lankidetzan aritzeko prestutasuna** egon dela, eta, halaber, beharrezkoa iruditzen zaigu lanean eta **ahaleginean jarraitzea**, lehengoratzeko prozesu hau kudeatzeko beharrezko bitartekoak modu errazagoan lortzeko eta **auzoan bizi diren pertsonen partaidetza** sustatzen jarraitzeko.



BEHARREZKOA DA BENETAKO EGOITZA EGIAZTATZEN DUTEN TXOSTENAK ERREKLAMATU BEHARRA OINARRITZEA, ERROLDAKO ALTA UNEAN BERTAN GERTATZEN EZ DEN KASUETAN

Bizkaiko SOS Arrazakeria Elkarteak kexa bat planteatu zuen, Bilboko Udalak pisuen zerrenda bat daukalako, eta **errolan izena emateko eskariak ez direlako unean bertan egiten**; eskatzen den egoitza benetakoa dela egiaztatzeke zain geratzen da, eta, ondorioz, izapidea hainbat hilabete atzeratzen da. Azaldu zutenez, atzerapen horretan ez da salbuespenik egiten eta berdin eragiten die heldu eta adingabeei. Gainera, beren esanetan, helbide batean alta emateko zailtasuna dago, beste helbide bateko aurreko aldatik hilabete pasa ez denean. Zeukaten informazioaren arabera, gainera, aplikazio informatikoak ez zuen uzten errolan izena emanda egotea, hilabetetik beherako iraupenarekin. Errolan izena emateko orduan zailtasunak eragin zitzakeen beste egoera bat zera zen; etxebizitza batean pertsona ugari egotea izena emanda.

Gure ustez, aurreko informazio hori guztia kontuan hartuta, udalak **errolan izena emateari buruzko erabakia atzeratzen badu, txostenak behar dituelako, kasu hori arrazoitu eta justifikatu egin behar du, berdintasun eta proportzionaltasun printzipioei jarraiki.**

Udalak emandako datuen arabera, ukatutako eskabide portzentajea baxua da, eta, beraz, garrantzitsua iruditzen zaigu aurretik proportzionaltasun epai bat egitea. Haztapen horretan, gainera, kontuan hartu beharko litzake adingabearen interes gorena, Nazio Batuen Haurren Eskubideen Aldeko Batzordeak ezarritakoari jarraiki.

Erroldarik ezak materialki osasun edo hezkuntzarako eskubideari ez eragitea posible den arren, halakorik ez izateak zailtasunak eta mugak jartzen ditu aurretik baloratu behar diren eskubideez baliatzeko orduan. Hau da, **errolan izena emateko atzerapenak zailtasunak eta mugak sortzen ditu haurren eskubideez baliatzeko orduan**, eta horiek kontuan hartu behar dira izena emateko prozeduran „zantzuak“ baloratzeko edo irizpideak ezartzeko orduan. Ondorioz, eta, nolana ere, espediente azkar izapidetzea komeni da.

Hori dela eta, Bilboko Udalarari iradoki genion, biztanleen erroldako alta unean bertan izapidetzen ez den espedienteetan, benetako egoitza hori egiaztatzen duten txostenak erreklamatzeko beharra oinarritu zezala eta, justifikazio horretan, proportzionaltasuna, berdintasuna eta adingabearen interes gorena bezalako printzipioak kontuan har zitzala. Gainera, helbidean benetan bizi dela egiaztatzeke txostenak egin beharra justifikatzen duten irizpideen publikitatea egiteko eskatu genion. Udalak erantzun digunez, jarraibide egokiak egingo ditu esandakoaren arabera jarduteko. Halaber, egiaztapen txostenak edo benetako egoitza frogatzeko beste ikerketa batzuk justifikatzen dituzten irizpide orokorrak argitara emateko formaltasun juridikoa aztertuko da.

SENTIKORTASUN KIMIKO ANITZEKO SINDROMEAREN DUEK PERTSONA BATEK BILTEGI-ATERPE BAT ERAIKI AHALKODU LURZORU URBANIZAEZINEAN

Pertsona batek udalerrira arabar batean eraikuntza bat eraikitzeko zituen zailtasunen berri eman zigun. Zehazki, **lurzoru urbanizaezinean** zegoen lur zati batean biltegi-aterpe bat eraikitzeko hirigintza lizentzia bati buruz ari zen. Lizentzia hori, izan ere, ezetsi egin zitzaion. Eraikuntza hori egiteko alegatzen zuen arazoia zera zen: pairatzen duen patologia tratatzeko toki bat gaitzea; Sentikortasun Kimiko Anitzaren Sindromea, hain zuzen ere. Gaixotasun horren ondorioz, berau pairatzen duenak guneratu

tuetan egon ohi diren **agente kimiko eta toxikoetatik aldenduta** egon behar du. Ingurumenean dauden agente horien adibide dira, besteak beste, elementu organiko lurrunkorrak edo beste produktu toxiko batzuk. Patologia honen episodio zorrotz batzuk tratatzeko eta okerragoa joatea saihesteko, pertsona honek inguru librean eta agente toxiko eta kutsagarrietatik ahalik eta maila baxuena duen toki zabal batean egoteko aukera bat eduki behar du. Tratamendu horretarako lekurik aproposena, inguru naturala izateagatik, eta patologia honek eskatzen dituen ingurumen ezaugarriak kontuan hartuta, aipatu lur zatian identifikatu zen, lurzoru urbanizaezinean.

Datuak aztertuta, bada, **gomendio bat egin genion** Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailari, patologia hori daukan pertsona baten behin-behineko tratamendurako eraikuntzaren interes publikoa balora zezan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legean jasotakoaren arabera, eta, ondorioz, espediente berri bat izapidetu zezan. Arabako Foru Aldundiak **toxikorik gabeko erabilera anitzeko biltegi-aterpe bat instalatzeko interes publikoa aitortzea** ebatzi du. Irizpide aldaketa honi esker, eraikina egiteko izapideekin hasi ahal izan da.



DERRIGORREZKO DIRU BILKETARAKO ESPEDIENTE BAT INDARGABETU DUTE, IBILGAILU BAT BIDE PUBLIKOTIK ERRETIRATU IZANAREKIN LOTUTA

Hiritarra ez zen ados agertu Lekeitioko Udalak jarraitutako jarduerarekin. Izan ere, hainbat likidazio ordaintzeko eskatzen zion, **Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga** gisa, udaltzaingoak 1994an bide publikotik erretiratu zuen eta harrezkero zirkulazioz kanpo dagoen ibilgailu batekin lotuta.

Kexagilearen esanetan, zerbitzu militarra egiten ari zenean, Lekeitioko udaltzaingo bat berarekin harremanetan jarri zen, bere jabetzakoa zen ibilgailu bat erretiratu behar zelako bide publikotik, haren kontserbazio egoera okerraren ondorioz. Ibilgailua bide publikoan aparkatuta zegoen eta piezak lapurtu zizkioten. Ukituak azaldu zenez, une hartan ez zuen diru sarrerarik eta ezin zuen Lekeitiaraino joan. Udaltzaingoak ibilgailua bide publikotik erretiratuko zutela adierazi ziola ziurtatzen du kexagileak.

Kontuan hartuta udalak ibilgailua bide publikotik materialki erretiratzeko betebeharra hartu zuela eta autoak desegiteko tokira eraman zuela, Arartekoak zera planteatu zuen: **behin betiko baja eman ziezaiola ibilgailuari trafiko erregistroetan eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren likidazioak indarrik gabe utzi zitezela**. Izan ere, udalak, bere jardueran, ez zuen bete ibilgailuak erretiratu eta gordetzeari buruzko aginduan arautzen den prozedura. Arau horretan eskatzen zen, besteak beste, erretiratutako ibilgailua zirkulaziorako egokia ez zela egiaztatzen bazen, eta horretarako beharrezkoa zen Industria Ordezkaritzaren aurretiazko txostena, administrazioak desegiteko tokirako autoa zela ondorioztatu behar zuela, eta, beraz, horren berri eman behar ziola Trafikoko Probintzia Burutzari, ibilgailua zirkulaziotik behin betiko erretiratzea adostu zezan.

Lekeitioko Udalak kexagilearen kontra izapidetzen ari zen **derrigorrezko diru bilketarako espedientea** eta bertan jasotzen diren zorrak, errekarquak eta gainerako gastuak **indarrik gabe uztea** erabaki du. Era berean, behin betiko baja emango dio ibilgailuari, Trafikoko Probintzia Burutzan.





OFIZIOZKO JARDUERA, ITSASERTZEKO EGOKITZAPEN OBREN ERAGINAREN AURREAN MUNDAKAKO HONDARPEA BABESTEKO PROPOSAMENAK EZAGUTZEKO

Laidako hondartzako hareatza berreraikitze obrek, 2015ean egindakoek iazko neguko ekaitzen ondorioz, gizarte eta ingurumen mailako gatazka piztu dute Mundaka inguruan. Surfari talde batek eta elkarte ekologista batzuek lbarrangeluko itsasertzean harea mugimenduen ingurumen eragina ebaluatzeko eta **Mundakako ezkerreko olaturako eragina** murrizteko neurriak hartzeko eskatu dute. Olatu natural horrek 400 metroko ibilbidea duten hodiak sortzen ditu, eta, hala, munduko tokirik onenetakoa da surfean aritzeko. Lehendik ere olatu horrek itsasertzean egindako obra eta lur mugimenduen eragina jasan izan du.

2015. urtearen hasieran, Ingurumen Ministerioak hainbat obra onartu zituen lbarrangelun, hondartzarako sarbideak hobetzeko, harri lubetako hormak konpontzeko eta erreka bideratzeko. Obren ondorioz, **40.000 metro kubiko harea lekualdatu** behar izan ziren marea arteko gunetik, Laidako gunehorera, hondartza birsortzeko.

Maiatzean, hainbat elkartetan eta erakundek eskatu zuten, tartean Mundakako Udala, harea mugimendu horiek eteteko, harea birsortzeko planari buruzko txosten tekniko zehatzagoak eduki arte. Izan ere, harea ateratzeko lanak Mundakako hondarpearen gaineko ertzetik 50 metro baino gutxiagora gauzatu ziren.

Ingurumen Ministerioak, eskabideari erantzuna emateko, **lan batzorde** bat eratu zuen eta, bertan, inguruko udalek, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak parte hartu dute. Batzorde horretan Azti Tecnaliaren txostenak aurkeztu dira eta, Urdaibaiko Patronatuarekin batera, esku hartzeko plan bat adostu da.

Hala ere, hainbat jardueraren ondorioz azterketak egin behar izan dira Mundakako hondarpearen gainean eta berau babesteko neurriak sustatu. Besteak beste, agintariei eskatu diete Mundakako hondarpeak **“kultura intereseko ondasun”** edo **“natura espazio babestu”** izendatzeko izapideak hasi ditzatela, kultura ondarea eta natura ondarea babesteko legediaren arabera. Mundakako olatua defendatzeko kanpaina horretara hainbat elkarte ekologista batu dira eta ingurumen eraginaren gaineko azterketa egiteko eskatzen dute, Biosferako Erreserba gisa katalogatutako tokia dela kontuan hartuta.

Arartekoak EAEko administrazio publikoen jarduerak kontrolatzeko lanean soilik esku har dezake. Obren ondoren itsasertzearen egoerari buruzko informazioa jasotzeko asmoz, hala ere, jarduera hau hasi genuen eta elkarte eta interes taldeekin harremanetan jarri ginen, beren planteamendu eta proposamenak ezagutzeko, eta, gure jarduera eremuaren barruan, Mundakako olatua babestearen gaineko gatazka honetan **inplikaturako alderdien ingurumen partaidetza eta informazioa sustatzeko**.

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILAK HOBETU EGINGO DU BERE WEBGUNEAN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AIREAREN KALITATEAREN KONTROL ETA ZAINTZA SAREKO DATUEI BURUZ ESKAINTZEN DUEN INFORMAZIOA

Hala, Sailak Arartekoaren **iradokizuna** onartu zuen, ingurumen informazioa hobetzeko hainbat proposamen egiten zituen.

Zehazki, adierazi genuenez, Sailak **informazio nahikoa** sartu behar zuen bere webgunean **datuak balioztatzeko prozesuei buruz** (automatikoki eta eskuz) eta ebaluazio datuak behar bezala egiaztatuta eta balioztatuta dauden une zehatzari buruz. Era berean, webgune honek informazio zehatza jaso beharko luke **neurketa ekipoen funtzionamendu eta kalibraketa arazoetan** sor daitezkeen gora behera zehatzen gainean, kasu batzuetan lortutako datuak baliorik gabe utz baititzake.

Bere erantzunean, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak webgune ingurumen informazioan egindako hainbat aldaketaren berri eman digu. Airearen kalitatea kontrolatzeko sarearen funtzionamenduari buruzko atalean honakoa adierazi da: *“Datuak jasotakoan, automatikoki balioztatzen dira, sarean datuak ustiatzen dituen softwarearen bidez, eta webgune honetan argitaratzen dira. Ondoren, datu horiek eskuz egiztatzen ditu teknikari kualifikatu batek”*. Edonola ere, gaineratu duenez, *“zuen iradokizuna ikusita, aldatu egin da ohar honen edukia, azken egiaztapenaren eta baliozkotasunaren une zehatza argitzeko, eta, hala, Airearen Kalitatearen Zaintza eta Kontrol Sarean eskuratutako datuen ingurumen informazioa hobetzeko.”* Eskuz balioztatu ondoren **webgunean datuak argitaratzeko** egungo **denbora murriztu** egin dugula (10 egun baino gutxiago) jakinarazi nahi dugu.

Neurketa ekipoen gorabehera zehatzei dagokienez, Sailak informazioa hedatuko duela adierazi du: *“Erakunde honek egindako iradokizuna kontuan hartuta, aurrerantzean, ekipoetan egondako matxuraren baten berri dugunean, beti argitaratuko da ohar hori, biztanleei Airearen Kalitate Sarearen funtzionamenduari buruz igorritako informazioa hobetzeko.”*

Erantzun horrekin, beraz, **Arartekoak egindako iradokizunaren aldeko erantzuna** eman dela ulertzen dugu. Iradokizun horretan, zehazki, hiritar batek neurketa kabinetako datuen informazioa hobetzeko aurkeztu zuen proposamena jaso genuen.



EUSKADIN HARRERA EGOERAN DAUDEN HAUR ETA NERABEEN ARRETA

Euskadin familia harrerak izan duen egoera bereziki interesgarria izan da beti Arartekoarentzat eta hainbat aldiz landutako gaia izan da. Besteak beste, *Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak* txosten berezian eta hainbat kezaren bidez jorratu dugu. Horieta askotan, egoera zehatzak alpatzeaz harago, aplikazio orokorraren ezaugarriak azaltzen dira, eta, beraz, Arartekoak gomendio hau egin du, hiru aldundietako Gizarte Ekintza edo Ongizate Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari zuzenduta.

Bertan, berariaz gorarazi dugu **familia harrera dela bitartekorik egokiena beren familian hazi ezin diren haur eta nerabeak hezteko**, eta bitarteko honen lehen-tasunezko izaera hori halaxe jaso da, era berean, bai Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean, bai aplikatu beharreko euskal araudian. Hala ere, antzeman dezakegun errealitatea ez dator bat lehen-tasunezko izaera horrekin. Horrenbestez, **familia harreraren aldeko apustu sendoagoa eta atzerapenik gabekoa** eskatu behar da, haurrak babesteko orduan erreferenteak diren herrialde europarrekin bat eginik. Adingabe horien eskubideak, familia biologikoarenak eta harrera familiarenak, gainera, hobeto bermatuta geratuko lirateke **familia harreraren gaineko araudi zehatz** bat balego. Beren ahotsa entzunarazteko eta beren iritzia kontuan hartzeko eskubideak garrantzia berezia dauka harreraren jarraipenean eta beren eskubide eta beharrezanez arreta egokia ematen zaiela bermatzeko orduan. **Familia hartzaileak** ere zaindu egin behar dira, gaur egun gehienak borondatezkoak direla kontuan hartuta. Izan ere, **babesik gabeko haurrei testuinguru egonkor eta segurua emateko orduan ezinbestekoak** dira.

Azkenik, **emantzipazioaren unearen ahultasun berezia** kontuan hartuta, ezinbestekoa da une horretarako aurreriazko prestatzea eta emantzipazioaren unean bertan konpainia ematea, familia hartzailearekin bizitzekin jarraitu nahiz ez.



PERTSONA LANGABETUENTZAKO LAGUNTZA PUBLIKOAK HEDATZEA, EUSKARA IKASTEKO, LAGUNTZA HORIEK BERDINTASUN BALDINTZETAN ESKURATZEKO AUKERA BERMATUTA

Egjaztatu ahal izan dugunez, euskarak gure gizartean komunikazio, kultura eta nortasun izaera izateaz gain, geroz eta gehiago dauka kualifikazio faktore osagarria ere, eta, beraz, beharrezkoa da berau ikasteko erraztasunak jartzeari, baita pertsona langabetuei ere. Trebakuntza hori ez du Lanbideak ematen, baizik eta EAeko udalek, beraiek baitira horretara bideratutako laguntza publikoak kudeatzen dituzten erakundeak. Antzeman ahal izan denez, hala ere, udal guztietan ez dago horretarako programarik, eta programak dituzten udalen artean ere ez da homogeneotasunik antzeman. Ondorioz, ukitutako euskal administrazio publikoek, pertsonen enplegarritasuna sustatzeko neurriak bultzatzeaz gain, hartzen dituzten neurrietan errespetatu egin behar dute hiritarren berdintasun printzipioa, zein udalerritan bizi diren gorabehera.

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari gomendatu diogu, toki administrazioarekin eta Lanbiderekin batera lan egin dezala, **pertsona langabetuei euskara ikasteko laguntza publikoak sustatu eta handitzeko**, horiek berdintasun baldintzetan eskuratu ditzaketela bermatuta.



POLITIKA PUBLIKOETAN, ETA BEREZIKI, DIRU SARRERAK BERMATZEKO SISTEMAN, ADINGABEAREN INTERES GORENA KONTUAN HARTZEKO DERRIGORTASUNA

Arartekoak kexa ugari izapidetzen ditu, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) edo Etxebizitzaren Prestazio Osagarria (DBE) diru laguntzak Lanbideri eskatu dizkionten eta hurrekin bizi diren bizikidetzaren unitateak mintzagai dituztenak. Kexen arrazoiak batez ere prestazio horiek ukatu, eten edo iraungi izanarekin lotuta daude.

Gertaera hori kezkatzeko modukoa da, batez ere kontuan hartzen baditugu haur pobrezia buruz dauden datuak eta horrek beren prestakuntza eta garapen pertsonalean dituen ondorioak, bai eta gizarte errelebu hartuko duen etorkizuneko belaunaldi gisa duen gizarte eragina ere.

Hori dela eta, honakoa gomendatu diogu Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

- DBE eta EPO prestazioak eten edo iraungitzeko erabakiak hartzen dituzenean, bizikidetzaren unitatean haurren bat baldin badago, **adingabearen interes gorena ebaluatu dadila, interes hori lehentasunezko irizpidea izan dadila, eta prestazioen onuradun diren bizikidetzaren unitateko kideen (gurasoak edo tutoreak, nagusiki) arau hausteekin alderatuta haztatu dadila.**
- Haurrak dauden bizikidetzaren unitateari eragiten dieten ebazpenetan, prestazioak eten edo iraungitzea erabakitzen denean, **haurren eskubideetan eta garapenean izango dituzten eraginak azaldu eta justifikatu daitezela.**
- Haurren egoeran beste zailtasun batzuk antzematen badira eta haurren eskubideei edo garapenari eragin badiezaieke, **udaleko gizarte zerbitzuak jakinaren gainean jar daitezela, gizartean edo hezkuntzan esku hartzea komeni denetz baloratzeko.**



GIZA ESKUBIDEEN ADIERAZPEN UNIBERTSALAREN 67. URTEURRENA

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren urteurrena ospatzeko, Arartekoak **Fabián O. Salvioli NBEko Giza Eskubideen Batzordeko burua** gonbidatu zuen Euskadira.

Salvioli irakaslea, zientzia juridikoetako doktorea, nazioarteko harremanetako maisua eta nazioarteko zuzenbide publikoko katedraren titularra da, azken hori La Platatako Unibertsitate Nazionalan. 1999az geroztik, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeko kide da. Organo horretan, hain zuzen ere, giza eskubideen arloan munduko hamazortzi aditu daude eta bera da, gaur egun, bertako burua. Batzordearen eginkizuna Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Ituna aplikatzen dela ikuskatzea da. Alderdi anitzeko tratatu hori Nazio Batuen Batzar Nagusiak hartu zuen eta, eskubide zibil eta politikoak aitortzeaz gain, horiek babestu eta bermatzeko mekanismoak ezartzen ditu.

Arartekoak Bizkaiko Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoetsuarekin batera antolatutako ekitaldian, Salviolik honako hitzaldia eman zuen: *“El Comité de derechos humanos: Control de la aplicación del Pacto Internacional de derechos civiles y políticos. Especial referencia a las reclamaciones contra España”*.



“HAURRAK ETA NERABEAK BABESTEKO LEGE BERRIA: ALDAKETA NAGUSIAK” JARDUNALDIA

Azaroan, Arartekoak jardunaldi hau antolatu zuen, haur eta nerabeen arretan inplikaturako pertsona guztiak haur eta nerabeen babes estatu mailan arautzen duen esparruan gertatu ziren **arau aldaketetara** hurbiltzeko.

Legegintza aldaketa hori luze itxarondakoa izan da, eta, gainera, hainbat gai interesgarri jaso ditu, besteak beste, **adingabearen interes gorena**, bere ahotsa entzunarazteko eta bere iritzia kontuan hartzeko eskubidea, eta, orokorrean, berme handiagoa bere eskubideak benetan betetzeko orduan. Gai horiek guztiak aldarrikatzen ditu **Haurraren Eskubideei buruzko Hitzarmenak**. Orain, babesik gabe dauden haurrei eta nerabeei arreta ematen dieten gizarte zerbitzuak hobetzeari buruz hausnartu beharra dago, bai euskal araudiaren esparruan, bai zerbitzu eta programen kudeaketa mailan.

Jardunaldiari hasiera eman ondoren, Arartekoko Haur eta Nerabeen Bulegoko Elena Ayarza zuzendariak legean egondako aldaketa esanguratsuenak azaldu zituen. Ondoren, mahai inguru batean, araudi berria baloratu zen eta **Euskadin** babesik gabe dauden haur eta nerabeen arreta **sisteman duen eragina** aztertu zen.

Topaketa hartara bertaratu ziren administrazio desberdinetako haurren zerbitzuetako teknikariak, gizarte langileak, eta, orokorrean, haur eta nerabeen babes sistemarekin lotutako eremu desberdinetan lan egiteko duten pertsonak.

“EMAKUMEAK ESPETXEAN, ZAILTASUN GEHIAGO” JARDUNALDIA

Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna ospatzeko, Arartekoak, Eusko Legebiltzararekin lankidetzan, “Emakumeak espetxean, zailtasun gehiago” izenburupeko jardunaldia ospatu zuen.

Topaketa honetan errealitate ez hain ezagun honen gaineko **sentsibilizazioa piztu** nahi izan da: preso dauden emakumeen egoera eta beren zailtasunak emakume eta ama gisa, espetxean dauden bitartean. Izan ere, emakumeek are baliabide gutxiago dauzkate beren egoera ikusarazteko eta benetako jabekuntza lortzeko.

Jardunaldi honetan, **Isabelle Rome**, Versailleseko Apelazio Gorteko magistratu eta *Dans une prison de femmes* liburaren egileak, bere lanaren ondorioak ezagutarazi zituen.

Ondoren, mahai inguru batean, Ruth Alonso Bilboko Espetxeetako Zaintzako epaile magistratuak, Juan Calparosoro Euskal Herriko fiskal gorenak eta Estíbaliz de Miguel “Sin Rejas” sareko koordinatzaile eta ikerlariak Euskadin emakume presoen egoerari buruz eztabaidatu zuten.



OMBUDSMANAREN IBEROAMERIKAKO FEDERAZIOAREN (FIO) EMAKUMEEN DEFENTSA-ERAKUNDEEN SAREKO EUROPAKO ESKUALDEAREN TOPAKETA

Genero indarkeria: gelditzen ez den gaitza. Egoeraren eta agintari publikoek hartutako neurrien azterketa

Estatu Espainiarreko, Andorrako eta Portugaleko Defentsa-erakundeen ordezkariak Vitoria-Gasteizen bildu ziren, egoera aztertu eta agintari publikoek genero indarkeriaren eremuan hartu dituzten neurriak baloratzeko.

Hasteko, lurralde desberdinetako datu estatistikoak, antzemandako hutsune nagusiak eta agintari publikoen erantzunetako jardunbide onak aztertu ziren.

Ondoren, Gran Hotel Lakuan bertan, mahai inguru bat egin zen eta bertako partaide izan ziren Ana Alberdi, Emakundeko idazkari nagusia; Miren Ortubay, EHUKo Zuzenbide Penaleko irakaslea eta María Maeztu Forum Feministako kidea; Eva Silván, Save the Children elkarrearen ordezkaria EAEn; eta María José Barbarín Urquiaga, Gipuzkoako Audientziako Lehen Ataleko magistratua (emakumearen kontrako indarkerian espezializatutako atala) eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Genero Indarkeriaren Behatokiko Adituen Batzordeko kidea.

Eztabaida amaitutakoan, Julia Hernándezek, arartekoaren ondokoa eta Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren (FIO) Emakumeen Defentsa-Erakundeen Sareko Europako Eskualdeko koordinatzailea bera, jardunaldiaren ondorioak eta defentsa erakundeen aitorpena aurkeztu zituen.





HERRIAREN DEFENTSA-ERAKUNDEEN BATERAKO KOMUNIKATUA, EUROPAKO ERREFUXIATUEN KRISIAREN AURREAN

Aspaldian Europak zuzenean ikusi ahal izan du gerrak, goseak, intolerantziak eta elkartasunik ezak eragiten duten drama. Etsituta gure mugak gainditzen saiatzen diren pertsonak eta itxaropenak bidean galdu dituzten gorpuak dira horren lekuko.

Egoera hori, gainera, are gehiago okertu da hainbat gatazka belikoren ondorioz, eta, hala, Europan II. Mundu Gerraz gerotzik bizi izan duen errefuxiatu krisirik handiena eragin du.

Testuinguru honetan, eta milaka pertsonaren **giza eskubideen aurkako atentatu** honen aurrean, Herriaren Defendatzaileak eta bederatzi defendatzaile autonomikoek kolektibo horiekiko elkartasuna eta konpromisoa adierazi zituzten, eta, horrez gain, oso-osorik berretsi zuten **Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Mandatariak Europako errefuxiatuen krisiaz egindako adierazpena**.

Halaber, Espainiako Gobernuari, autonomia erkidegoetako gobernuari eta tokiko erakundeek dei egin zieten, gerratik eta intolerantziatik ihes egiten duten pertsonak berme osoz hartzeko **konpromisoa eta elkartasuna** beren gain har ditzaten. Eskatu diete, halaber, Nazioarteko eta Europako erakundeek nahiz beste Estatu batzuek eska diezaietela politika komunak gara ditzatela, berehala, errefuxiatuen jatorrizko Estatuetan sortzen diren arazoak eragingarritasunez konpontzen laguntzen laguntzeko, arazo horiek eragin baitute migrazio krisia.

OSPITALE LARRIALDIAK OSASUN SISTEMA NAZIONALEAN: PAZIENTEEN ESKUBIDEAK ETA BERMEAK

Defendatzaile autonomikoek eta Espainiar herriaren defendatzaileak azterketa bat aurkeztu zuten, era bateratuan egina, Estatuko **ospitale larrialdietako zerbitzuen errealitateari** eta haren funtzionamenduak **oinarritzko eskubideetan duen eraginari** buruz.

Azterketa hori hiru helbururekin planteatu zen:

- Larrialdietako osasun arretako eta haren aplikazio estandarretako eskubide eta bermeak identifikatzea.
- Zerbitzu horietan egoerarik ahulenetan dauden pertsonen zein arreta ematen zaien aztertzea.
- Pazienteen iradokizun eta erreklamazioak aztertzea, zerbitzuaren barometro gisa eta berau hobetzeko tresna legez erabiltzeko.

Agirian **berrogei ondorio** jaso dira eskuragarri dauden bitarteko materialei, giza baliabideei, pazienteen eskubideei, talde ahulen arretari edo kalitateari buruz, zerbitzuaren exijentzia eta berme gisa.





E-INKLUSIOA ETA EUSKADIN HERRITARREK IKT-EN BITARTEZ GIZARTEAN ETA EREMU PUBLIKOAN PARTE HARTZEA

E-inklusioa eta Euskadin herritarrek IKT-en bitartez gizartean eta eremu publikoan parte hartzea txosten berezian -2012an- jaso ziren gomendioen aplikazioaren gaineko jarraipenena egiteko ekintzen esparruan, Arartekoak informazioa eta dokumentazioa bildu ditu euskal administrazio publikoek hartu dituzten ekimenei buruz, honakoekin lotuta:

- Beren zerbitzuen eta web instituzionalen **irisgarritasuna errazteko** jarduerak.
- **Kate aniztasunerako** eskubidea sustatzeko ekimenak.
- Gailu mugikorretan erabiltzeko **garatutako aplikazioak**, batez ere pertsona nagusiei eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen zuzenduta.
- **Herritarren partaidetzarako** eta IKTen bidez garrantasuna sustatzeko ekimenak.

Hala, euskal administrazio publikoek azken bi urteotan gai honetan izan duten aurrerapena egiaztatu nahi da, gure gomendioak bereganatzeko orduan duten konpromiso maila aztertzeaz gain.

Ondorioak:

Azterketan bilakaera bat ikusi ahal izan da, bai hiritarrei dagokienez, bai euskal administrazio publikoei dagokienez, eta horren adibide dira honako gertaera hauek:

- Apurka-apurka **eten digitalak murrizten** doaz, bereziki generoarekin eta adinarekin lotutakoak.
- Bestalde, **lan jarduerarekin** (landunak/langabeak) eta familia motarekin (seme-alabadun familia/seme-alabarik gabekoa/bakarrik bizi direnak) lotutako beste batzuk oraindik ere **badiraute** eta desberdintasun nabarmenak islatzen dituzte interneten erabileran.
- **Administrazioei** dagokienez, alderdi batzuetan **“egin-beharrak” bete dituzte** eta bitarteko, modu eta trena egokiak jarri dituzte, hiritarren partaidetza eta inklusio digitala ahalik eta gehien errazteko.
- “Eginbehar” horien barruan, **aurrerapen handiak** egin dituzte **esparru arautzaile eta estrategikoan**. Horren adibide dira Euskadiko demokraziari eta herritarren parte hartzeari buruzko liburua, batetik, eta Euskal Administrazio Publikoaren Lege Proiektua, bestetik. Bi adibide aipagarri horiek aurrera pausu bat gehiago dira hiritarrek bizitza politikoan eta beren inguruaren osakeran izan behar duten rol berria sustatzeko oinarriak finkatzeko orduan.
- Hala ere, **hainbat gomendio aurkeztu ditugu berriz ere**, bilakaera aztertu ondoren oraindik ere indarrean daudela eta administrazioek berrikusi eta baloratu behar dituztela uste baitugu.

Haur eta nerabeentzako bulegoa

Haur eta Nerabeentzako Bulegoak haur eta nerabeei eragiten dizkieten gaiak lantzen ditu. Aurten, Arartekoa erakundearen ireki diren 4 espedientetik 1ek adingaberen bati eragin dio, bere eskubideak nolabait mehatxatuta.

- 1 Bizitzeko eta bizirauteko eskubidea:** adingabeak tartean dituzten kasuen ia erdia estutasun ekonomiko larriko egoerekin lotuta dago. Urtean zehar egin diren jarduera desberdinetan agerian geratu dira Europako Batzordeak *Haurtzaroan inbertitu: desabantailen zikloa hautsi* gomendioan jaso zituen elementuetako batzuk. Inbertitzeaz mintzo gara, ezer egiten ez badugu, pobrezia belaunaldiz belaunaldi transmititzen delako eta desabantaila egoerak betikotzen dituelako. Haurren pobrezia jorratzeak epe luzeko onurak eragiten ditu haurrentzat, ekonomia-erentzat eta gizartearentzat, oro har. Edonola ere, prebentziorik eraginkorrera **estrategia integratuen** bidez lortzen da. Horren barruan sartzen da, besteak beste, familiek bitarteko egokiak eskuratzeko aukera izatea. Horretarako, era berean, gurasoek lan merkatuen duten partaidetza babestu behar da, eta, horrez gain, **bizi maila egokia sustatu**, prestazioen konbinazio egokiaren bidez.
- 2 Hezkuntzarako eskubidea:** eskariek aurreko urteetan antzemandako gai berdinak edo antzekoak islatzen dituzte: **onarpen irizpideak** plaza nahikoa ez dauden kasuetan; **hezkuntza beharrian berezietan** babes nahikorik ezak sortzen dituen zalantzak; atzerapenak eta ukapenak ikasketen laguntza eta **beketan**; etab. Bigarren mailako ikasketak egiaztatu ez dituzten 17 urtetik beherako gazte batzuen egoera aipatu daiteke berri gisa. Izan ere, hasierako lanbide kualifikaziorako programak eta prestakuntza iragankor integratuko programak desagertu egin dira, oinarritzko lanbide heziketa berria martxan jartzean. Berrikuntza gisa aipatzekoa da, era berean, **eskola garraioa** arautzen duen dekretua onartu dela. Orain, aurreko urteetan zenbait landa gunetan, hezkuntza berrizantze bereziak dituzten ikasleen kasuan edo behin-behinean lekualdatutako ikasleen kasuan antzeman ziren zailtasunak konpontzeko orduan eraginkorra ote den egiaztatu beharko da. Azkenik, **eskolako bizikidetzarekin** lotutako kekek izapidetzean, berriz ere ondorioztatu ahal izan dugu familiekiko komunikazioak berebiziko garrantzia duela.
- 3 Babesik gabe dauden haurrentzako gizarte zerbitzuen** eremuko kexa gehienetan, oraindik ere, beren seme-alaben babesik eza, guraso ahalarrekin

etendura eta tutoretza foru erakundera pasatzea ondorioztatzen duten haur zerbitzuen balorazioarekiko adostasunik eza gailentzen da. Kexa horietako gehienak bide judizialek bideratu dira, baina, horrez gain, balorazio prozesuarekin lotutako beste gai batzuk ere aipatzen dira, besteak beste, komunikazioa eta informazioa. Eremu horietan lanean ibili gara eta, orokorrean, ez da administrazioaren aldetik jarduera okerrik antzeman.

Bestalde, uztailean onartutako babes sistemaren legedi aldaketa sakonean **genero indarkeria jasaten duten haurren** biktima izaera aitortu ondoren, lanean jarraitzen dugu beren beharrianak antzeman eta jorratzeko proposamenak egin eta egoera aztertzen.

- 4 Familia babesle baterako eskubideari** dagokionez, gorarazi beharra dugu, berriz ere, familien arloan lan egiteak ez duela esan nahi soilik laguntza publikoen edo diru laguntzen politikak gauzatu behar direnik, baizik eta beharrezkoa dela pertsonen bizitzarako geroz sostengaezina diren ereduak zalantzan jartzea, eragin nabarmena baitute gure gizartearen demografian eta gure bizi kalitatearen kaltetzean. Uztartze neurrien aldeko apustua bere zeharkako izaeragatik bereizi behar da eta gure sistema ekonomiko eta politikoa guztian agertu behar da, denboraren arrazionalizaziorako eta zaintzaren birbaloraziorako diskurtso berri batean, pertsonak jarriko gure arretaren erdigunean, eta ez, ordea, ekoizpena.
- 5 Haur eta nerabeen osasunerako eskubidea bermatu** behar duten politika publikoei buruzko kexetan gai aniztasun handia antzeman da. **Haur eta gazteen buru osasunari** dagokionez, aurten ez da berrikuntza handirik egon horri arreta emateko aktibatutako baliabideetan, horiek izanik herritarren eskarien elementu nagusia. Hala ere, oraindik ere konklusioak jasotzen ditugu dramatismo handiko egoerei buruz, non buru osasuneko arazoak dituzten haur eta nerabeen familiek aholkularitza, orientazioa eta, azken finean, laguntza bilatzen baitute.
- 6 Justiziako administrazioaren** kasuan, jasotako kekek bi alderdi nagusiri buruzkoak izan dira: beste adingabe batzuen biktima diren gazteek bitartekaritzaren prozesuetan behar dute arreta eta jabeakuntza; gurasoentzako informazioa eta 14 urtetik beherakoak diren eta arau hausteak egin dituzten haurrei entzuteko aukera.



7 Jolaserako, atsedenerako eta aisia eta jolas jardueretarako eskubideari dagokionez, atzerrian jaiotako nerabeei futbol federazioko lizentzia eskuratzeko orduan izan dituzten zailtasunak edo gazteek lokaletan izan dituzten arazoak izan dira 2015. urteko adierazgarrienak.

8 Trans diren edo arauz kanpoko genero jarrerak dituzten **adingabeek** eta beren familiek neurriak eskatu dituzte, adingabe horien eta beren senideen arreta publikoaren esparrua hobeto egokitzeko, bai osasun eta psikologia arretari dagokionez, bai hezkuntza eremuari dagokionez. Bestalde, egiaztatu ahal izan dugunez, **LGBTI haur eta nerabeen** eremuan, oraindik ere hutsune nabarmena dago hezkuntza sisteman, dibertsitate afektibo-sexualerako eta genero dibertsiterako eskubideak guztiz errespetatzen direla sustatzeko eta egoera horiek

integratu eta ikusarazteko orduan. Ezinbestekoa da, beraz, euskal hezkuntza erakundeekin batera lan egitea, eskola haurrentzat toki segurua dela bermatuko duten tresnak sortzeko, beren sexu orientazioa edo genero nortasuna gorabehera, pertsona gisa bete-betean garatzeko aukera izan dezaten.

Amaitzeko, eta urtero bezala, 1989ko **Haurren Eskubideen buruzko Hitzarmeneko** funtsezko paradigma gogorarazi nahi dugu eta, beste behin, **esku-bideen subjektuak** direla azpimarratu nahi dugu. Horrenbestez, berriz ere erreklamatu nahi ditugu **partaidetza kate benetakoak eta egonkorak**, haurrei eta nerabeei entzuteko tarteak, mekanismo egokia, metodologia erakargarriak eta abar, pertsona adingabeek beren bizitzari eragiten dieten eremu desberdinetan parte hartzeko aukera izan dezaten.



ARGITALPENAK

- **Eusko Legebiltzarrarentzako Txostena**, Ararteko erakundeak aurreko urtean egindako jarduerak jasotzen dituena



- **Estatu soziala eta bizitza duina**. 2014an, UPV/EHU-rekin lankidetzan antolatutako jardunaldian –estatu sozialari eta bizimodu duinari buruz– azaldu ziren ponentzien bilduma. Jardunaldi honetan eskubide zehatz batzuk jorratu ziren: laneko eskubideak, osasunerako eskubidea, norberaren autonomia sustatzeko eskubidearekin lotura duten eskubide eta laguntzak, etxebizitza izateko eskubidea, biztanle migratzaileen eskubideak eta gizarteko eta hiriko gune duinetan bizitzeko eskubidea, herritarrek parte hartzeko eskubidearekin batera.



- **Familiaik eta beraien beharrak eta erronkak oraingo gizarte- eta ekonomia-egoeran: botere publikoen erantzuna**. Irailean egin ziren Herriaren Defendatzailen XXIX. Koordinazio Jardunaldietako-XXXIII. Udako Ikastaroetako ponentziak eta materialak jasotzen dituen argitalpena. Gure ustez, garrantzitsua da politika publikoak familien beharren ikuspegitik aztertzea, behar horiek profil berriak baitituzte, jo eta ke aldatzen ari den gizarte eta laneko errealitate honetan.



ARARTEKOA Q-EPEA SAREAN SARTU DA

Kudeaketa-lanetan bikaintasunarekin konpromisoa hartu duten Euskal Herriko erakunde publikoen Q-EPEA sarean sartu da Ararteko erakundeak. 2002an, **EUSKALIT** Bikaintasunerako Euskal Fundazioarekin elkarlanean, baterako hainbat jarduera egiten hasi zen, kudeaketako jarduera egokiak partekatu eta zabaltzeko, laneko agiriak modu irekian trukatzeko, beste erakunde publiko eta pribatu batzuei gonbita egiteko, esperientziak partekatu eta elkarrekin hedapen-ekintza publikoak antolatzeko asmoz. Sareko erakunde guztiek lotura bat dute: **beraien erakundeetako kudeaketa hobetu nahi dute**.

HERRIAREN DEFENDATZAILEEN KOORDINAZIORAKO XXX. JARDUNALDIAK

Herriaren defendatzaileak Santanderren elkartu ziren eta **etxebizitza publiko**arekin zerikusia duten gaiak jorratu zituzten, hala nola, etxebizitza izateko eskubidea Espainiako konstituzio araubidean, etxebizitza hutsak edo etxebizitza egokia izateko eskubidea. Horrez gain, urtean barrena egin ziren prestakuntza-lantegietan ateratako ondorioak aztertu ziren, azkenean botere publikoei helaraziko zaizkien zenbait hausnarketa eta proposamen egiteko.

Bere mintzaldian, Julia Hernández jarduneko arartekoak etxebizitza izateko eskubideaz hitz egin zuen, gainerako eskubideak (osasunerakoa, hezkuntzarakoa, e.a.) garatzeko **eskubide objektibo eta oinarrizkotzat** hartuta. Era berean, nabarmendu zuen etxebizitza publikoaren gaineko politika egokia egitea oso garrantzitsua dela bizitza duina izateko, eta botere publikoek neurri sendoak hartu behar dituztela, **etxebizitza duina izateko eskubidea** bermatu nahi bada.



EUSKAL GAZTEEN ZAILTASUNAK BEREN HIRITAR ESKUBIDEAK EGIAZ BALIATZEKO

EHUko XXXIV. Uda Ikastaroen barnean, Arartekoak **Euskal gazteen zailtasunak beren hiritar eskubideak egiaz baliatzeko, batez ere bizimodu autonomoa egiteko proiektua erakitzearekin lotutakoak** izenburuko jardunaldia antolatu zuen.

Manuel Lezertua arartekoak eta Ana Arrieta Gipuzkoako campuseko errektoreordeak eman zioten hasiera ikastaro horri. Bertan parte hartu zuten, besteak beste, Juan Pablo Landa Zapirain eta Joan Subirats katedradunek.

Pertsonak osorik garatzeko, bizimodu duina eraiki eta gozatzeko aukera izan behar dute. Jasaten ari garen krisi sozial eta ekonomikoak, lanerako eskubidean larriki eragin duenez gero, izugarri mugatzen ari da denek lortu ahal izan beharko luketen bizimodu autonomoko proiektua. Egoera hori gure gizarteko maila guztietan eragiten ari da, baina nabarmenago ageri da gazteen kasuan.

Jardunaldi horretan, **egungo egoeraren erradiografia** egin nahi zen, baita ere Konstituzioko xedapenaren eta Euskadiko gazteen benetako egoeraren artean dagoen desorekarena. Horretarako honako gai hauek aztertu ziren: lanak gizarteratzeko eta norberaren autonomia lortzeko duen betekizuna, euskal administrazioaren ekimenak eta, guretzat garrantzitsuenak, gure gazteek (zuzenean mintzatuz edo parte hartzen duten elkarteetako ordezkarien testigantzen bitartez) egingo dituzten bizitzaren deskribapenak.



EZdaEZETZ. JAIA ERRESPECTUZ BIZI!

Alkohola eta neurrigabekeria dira jaietako ohiko protagonistak. Nahaste horrek, ordea, ez du beti amaiera polita izaten, eta askotan, emakumeek zenbait ondorio pairatzen dituzte. Udan, halako egoeren aurrean eta gure herri eta hiriburu gehienek data horietan jaiak ospatzen dituzenez, Arartekoak herritar guztiei deia egin zien, hausnar zezaten eta inplika zitezten. Horregatik, pegatina batzuk egin eta banatu zituen, “EZdaEZETZ. Jaia errespetuz bizi!” esaldiarekin.



#EZdaEZETZ

Jaia
errespetuz bizi!

- Iñigo Lamarcak parte hartu zuen **AMPGYL**, gay, lesbiana, bisexual eta transexualen guraso elkartearen **Estatuko XIII. Biltzarrean**, Madrilen. Hain zuzen, “Hezkuntzarako eskubidea eta generoagatiko intolerantzia”ri buruzko mahai-inguruan hitz egin zuen. Ikasgelak haur eta nerabe askorentzat sufrimenduaren eta tratu txarren gune bihurtzeko arrazoiak eztabaidatu eta aztertu ziren AMPGYLen biltzar horretan.



- Martxoan ere, Lamarca arartekoak parte hartu zuen Eusko Legebiltzarrean antolatutako **UNESCO fundazioaren 70. urteurrena** (1945-2015) ospatzeko ekitaldi instituzionalean. Bertan, Euskal Herriko UNESCO Sarea aurkeztu zen.
- Horretaz gain, Haurren Plataformak Madrilen antolatutako **Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena zenbateraino ezartzen den aztertze jardunaldian** parte hartu zuen arartekoak. Lamarcak, Espainiako herriaren defendatzailearekin batera, defentsa-erakundeek eskubide bermatzaile gisa duten eginkizunari buruzko eztabaidan parte hartu zuen. Bertan, bere ikuspegia azaldu zuen familiei buruz eta horiek oraingo gizarte- eta ekonomia-egoeran dituzten behar eta erronkez. Topaketa horretan, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena Espainian ezartzeari buruzko azterketaren prozesua azaldu nahi zen. Izan ere, lan-esparru horretan babestu, sustatu eta defendatzen dira haur eta nerabeen eskubideak, gizarte-erakundeek elkarrekin lan eginez.

- “Pertsonen duintasuna eta balioa sustatzea” goiburua-ekin, martxoaren 17an, gizarte-lanaren munduko eguna ospatu zen. Ospakizun horrekin batera, Arartekoak eta Euskadiko gizarte-laneko profesionalen elkargoe-tako presidentek **baterako adierazpen** bat argitaratu zuten eta bertan ondorio hau atera zuten: **oinarrizko gizarte-zerbitzuak funtsezkoak dira** bai pertsonen beharrei erantzuteko, bai ahultasun egoerak antzeman eta haiei heltzeko. Hala ere, alde handia dago Gizarte Zerbitzuen Legeak zerbitzu horiei ematen dien eginkizunaren eta egin ahal izaten ari diren lanaren artean; alde hori are nabarmenagoa da oraingo krisi egoeran.



- Maiatzean, Julia Hernández jarduneko arartekoa “Gizarte zuzenago baten alde. 100 urte Abokatuen Biltzarrak egiten” izenburu zuen **Abokatuen XI. Biltzar Nazionalaren** hasiera-ekitaldian egon zen, Gasteizen. Felipe VI.a erregeak hasi zuen kongresua. Estatu oso-ko 1.200 abokatu inguru bertaratu ziren, 70 hizlari baino gehiago izanik. Ararteko erakundeak nabarmendu zuen abokatutzaren balioa, Justizia administrazioan eta Zuzenbide estatuan funtsezko osagai gisa. Hala-ber, abokatuen eginkizunak –pertsonarik eta talderik ahulenak defendatzeak– duen garrantzia azpimarratu zuen.
- Gutxitasun fisikoa edo/eta organikoa duten Bizkaiko pertsonen federazio koordinatzaileak (FEKOOR) **Pertsona guztientzako diseinua garapen sozialaren arloan** izenburuko mintegi tekniko antolatu zuen Bilbon. Jardunaldi horretan Julia Hernándezek parte hartu zuen, eta bertan, ezintasunen bat duten pertsonen laguntzeko erudian dauden ikuspegi berriei buruzko

gogoeta egin zuen, horiek komunitatearen bizimoduan era aktiboan parte hartu ahal izatekoa, aukera-berdintasunean, erabateko irisgarritasunean eta guztientzako diseinuan oinarrituta.

- Gizakia Helbururen 30. urtemuga dela eta, Donostian, osasun mentalaren gaineko jardunaldi bat egin zen, izenburu honekin: **“Buruko gaixotasunaren” mitotik patologia abagunetzat hartzera**. Julia Hernández jarduneko arartekoa bertara joan zen. Gai horretako adituek patologia mental larria tratatzean familiaren laguntzak duen garrantziaz hitz egin zuten, gaixoei jardutean izan zituzten hainbat esperientzia azaldu zituzten eta horien eragingarritasuna balioetsi zuten.
- Jarduneko arartekoak Lasarte-Oriako Sasoeta-Zumaburu ikastetxeak antolatutako **III. Aste Kulturantunean** parte hartu zuen. Horren bitartez, ezagutzera eman nahi ziren Lasarte-Orian dauden kultura eta jatorri desberdinak, gizarteratze eta bizikidetzat hobeak lortzeko asmoz. Parte-hartzaileen artean, besteak beste, Tarana Karim giza-eskubideen arloko ekintzailea eta Brahim Ahmed Fronte Polisarioaren ordezkaria Euskadin egon ziren.



- Julia Hernández **“ONCE Euskadi” XI. Elkartasun Sariak** emateko ekitaldian egon zen eta Gizarte Ekonomiako Enpresa saria eman zuen. Sari horien bitartez, esker ona adierazten zaie beraien eragin-eremuan elkartasun-lana egiten duten pertsona, elkarte edo erakundeei, herritar guztiak gizarteratzeko, normalizazioa eta norberaren autonomia, irisgarritasun unibertsala eta bizimodu independentea lortzeko ahaleginak egiten dituztelako.
- Uztailean, jarduneko arartekoa Donostiara joan zen, **Aita Menni Ospitaleak lege psikiatriari buruz antolatutako jardunaldira**. Ekimen garrantzitsua da hori, osasun arlo eta arlo judizialaren arteko elkarlana bultzatzen baitu, justizia-sistemarekin harremanetan jartzen diren eta arazo psikiatrikoak dituzten pertsonak artatzean – alderdi zibil nahiz penaletik begiratuta. Berreziki, gazte-justizia eta espetxeen eremua aztertzen ari da.
- Irailean, **Parlamentuetako Legelarien Espainiako Elkartearen XXII. Jardunaldiak** izan ziren Santiago de Compostelan. Bertan, zenbait adituk “Legebiltzerra eta herriaren defendatzailea” gaiaz eztabaidatu zuten. Jardunaldien barnean, besteak beste, “Herriaren defendatzailea etorkizuneko erronken aurrean” izenburuko mahai-ingurua egin zen, eta Julia Hernández jarduneko arartekoak parte hartu zuen ekitaldi horretan.

- Urrian, Gernikan, **Gernika Batailoiko gudariaren omenez** antolatutako ekitaldietan parte hartu zuen Julia Hernándezek. Gudari horiek Frantzia naziengandik askatzen lagundu zuten orain 70 urte Medoc-en, Poin-te Grave-eko batailan.
- Donostian, Kidetza-Euskadiko guraso bananduen fe-derazioak antolatutako **Gurasoek erantzukizuna par-tekatzeari** buruzko **II. jardunaldiak** izan ziren. Jardu-neko arartekoak, bere hitzaldian, gurasoen erantzuki-zun partekatuaren ardatz egituratzaileak aipatu zituen: adingabearen interes gorena, eta benetako eta egiazko berdintasuna.
- Urriaren 19an, Manuel Lezertua arartekoa itzuli zen bere eginkizunetara. Egun berean, Bilbon, **urte judicialaren hasiera** ospatu zen. Ekitaldia Euskadiko Auzitegi Na-gusiko egoitzan, Bilbon izan zen. Arartekoak eta Eus-kadiko agintari judicial eta instituzional nagusiek parte hartu zuten.
- Sabino Arana Fundazioak **“Europako Erkidegoko Zu-zenbideari eta Oinarrizko Eskubideei”** buruzko ezta-baida antolatu zuen Bilbon. Arartekoa, zenbait epaile, magistratu, fiskal, zigor arloko abokatu, politikari eta akademiko nabarmen bildu ziren, Zigor Zuzenbideak duen betekizunari buruzko hausnarketa egiteko. Bes-tela esanda, ETaren amaieraren aurrean, zigor eta es-petxe arloko politika nola bideratu beharko litzatekeen eztabaidatu zuten.
- Fernando Buesa Blanco Fundazioak eta Valentín de Foronda Gizarte Historiarako Institutuak **XIII. Fernan-do Buesa Mintegia** egin zuten Gasteizen, urriaren 29 eta 30ean. Mintegi horretan egon zen Manuel Lezertua arartekoa, eta bertan parte hartu zuten, besteak beste, Álvaro Gil Robles Europako Kontseiluko Giza Eskubi-deen arloko komisario ohiak, Imanol Zubero soziologo eta EHUko irakasleak, Alberto López Basaguren EHUko Konstituzio Zuzenbideko katedradunak, eta María Oian-guren Bakearen Aldeko Ikerketa Zentroko zuzendariak.
- Azaroaren 10ean, **Memoriaren Eguna** ospatzen den egunean bertan, Bilboko egoitzan, memoriaren ingu-ruko politika publikoak koordinatzeko asmoz sortutako *Gogora* Memoria Institutua aurkeztu zieten erakundeen ordezkariak, alderdi politikoei, biktimen elkarteei eta era-gile kulturalak eta sozialei. Lehendakari buru zuen eki-taldian, Manuel Lezertua arartekoa egon zen. Aurretik, eusko legebiltzarraren egoitzan bertan, “Gauerdiko ipa-rrorratza” eskulturaren ondoan ekitaldi bat ospatu zen.
- Azaroan, **Elikagaien pobrezia buruzko topaketa** bat egin zen Bilbon, Urban Elika taldeak antolatuta. Hori Euskal Herriko Unibertsitatearen diziplina anitzeko ikerketa-taldea da eta gizartearen eta elikaduraren gaineko azterlanez arduratzen da. Arartekoak hauxe adierazi zuen bere mintzaldian: *“denbora igaro ahala, jendea askoz hobeto ohartu da baliabideak erabiltze-ko modua aldatu beharra dagoela, batez ere egunetik egunera argiago ikusi delako zeintzuk diren klima-alda-ketaren ondorioak”*.
- Azaroan, arartekoak parte hartu zuen **Covite-k** anto-latutako **Jardunaldietan**. “Erradikalizatzeko bortitza, ETaren aurkako borrokatik terrorismo jihadistaren pre-bentziara” izenburuko jardunaldien testuinguruan “Po-liziaren borroka XXI. mendeko terrorismoaren aurka” buruzko mahai-ingurua egin zen.



ARARTEKOAK BAT EGIN DU EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNeko ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREKIN

Abenduaren 3a, Euskararen Nazioarteko Eguna 'Euskara Plazan!' goiburuekin ospatu zen Eusko Legebiltzarrean, gure hizkuntzaren presentzia bizia aldarrikatzeko. Arartekoak parte hartu zuen Eusko Ganberaren presidentea eta euskaltzainburua buru zituen ekitaldian. Bertan, Koldo Mitxelena hizkuntzalari eta euskaltzainari omenaldi egin zioten, jaio zeneko mendeurrena ospatzeko.

"Festa ederra Euskararen Nazioarteko Eguna Euskal Herriko eta mundu zabaleko euskaldunontzat ez ezik, munduko edozein bazterretan hizkuntza aniztasuna sustatu eta babestu nahi duen ororentzat; azken batean, hiztunak baitira hizkuntza baten benetako protagonistak".

Horrela hasi zen adierazpena, hainbat erakundek sinatua; Arartekoak ere horrekin bat egin zuen.

Adierazpen instituzionalean euskaldun berriei berariaz omenaldia egiten zaie, "eredu direlako guztiontzat, euskaraz dakitenentzat nahiz euskararik ez dakitenentzat, euskararen biziraupenerako bermea direlako, euskara erabiltzeko aukerak nabarmen biderkatzen baitzaizkigu haiei esker".



IKASLEEN BISITAK ETA GASTEIZTXO PROGRAMAREKIKO LANKIDETZA

Haurren eskubideei buruzko ezagutza hedatzea eta gaztetxoaren artean **giza-eskubide guztiak errespetatzen dituen kultura** bat sortzea Arartekoaren jarduketa-le-roetako bat da, haurrei eta nerabeei dagokienez.

Hori dela eta, beste urte batez, Ararteko erakundeak jarraitu zuen lankidetzan Gasteizko Udalaren Hezkuntza Sailarekin, **Gasteiztxo Albistegia** egiteko lanetan. Hainbat ikastetxetako ikasleek Arartekoaren egoitza bisitatzeko eta erakundearen jarduerari buruzko datu eta informazioak biltzen dituzte, gero, irrati- edo telebista-programa bat, edo aldizkari bat prestatzeko. EAEko institutu eta beste ikastetxe batzuetako ikasle-taldeek ere bisitatzen gaituzte.

Euskara
Plazan!

ZURE ESKUBIDEAK DEFENDATU BEHARRA DAUKAZU?

ARARTEKORA JO DEZAKEZU

- Euskal administrazio publikoak zurekin gehiegikeriaz, legez kanpo, nahikeriaz, bereizkeriaz, oker edo zabarkeriaz jokatu duen ikertzeko.
- Udalak, Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak oker jokatu badu, zure arazoa konpon dezan.
- Guztion onerako hobekuntzak gomenda ditzan.

ZER DA ARARTEKOA?

- Euskadiko Herri Defendatzailea da.
- Erakunde independentea da.
- Dohain eskaintzen den zerbitzua.

ZER EGITEN DU ARARTEKOAK?

- Pertsonak babestu euskal administrazio publikoen kontra.
- Herritarren eta administrazioaren arteko bitartekari izan.
- Legez kontrako egoerak galerazteko begiratu eta lan egin.
- Konponbideak proposatu eta legeak aldatzera bultzatu.
- Eusko Legebiltzarrari bere lanaren berri eman.

NOIZ JO ARARTEKORA?

- Administrazio batekin edo haren menpeko zerbitzu publiko batekin arazoren bat duzunean.
- Zerikusirik duen administrazioaren aurrean erreklamatu ondoren, erantzunik edo konponbiderik lortu ez duzunean.
- Momentu horretatik hasita, urtebeteko epearen barruan.

NOIZ EZ JO ARARTEKORA?

- Pertsona partikularren arteko auzia denean.
- Gaia auzitara eraman denean.

NOLA EGIN KEXAK?

- Norberaren datuak (izen abizenak, helbidea eta telefono zenbakia), agiri baliagarrien kopiak eta, ahal denean, kexaren arrazoia azaltzen duen idaztia emanez.
- Arartekoari zuzendutako gutunaren bidez
- (Prado, 9 - 01005 Vitoria-Gasteiz).
- Internet bidez: www.ararteko.eus
- Norbera hiru bulegoetako batera joanez.



NORA JOAN?

Harrera zuzeneko bulegoak

Araban

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18 • Fax: 945 13 51 02

Bizkaian

Albia eraikina. San Vicente, 8 - 11. solairua
48001 Bilbao
Tel.: 944 23 44 09

Gipuzkoan

Askatasun hiribidea, 26 - 4.
20004 Donostia - San Sebastián
Tel.: 943 42 08 88

Dei iezaguzu argibide gehiago behar baduzu.

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo



DESKARGA EZAZU
2015EKO URTEKO
TXOSTENA
FORMATU
DIGITALEAN:

